



GIZARTE
ZIBILAREN
II. TOPAKETA

ETORKIZUN KOHERENTE BAT

GARAPEN
IRAUNKORRERAKO
ALIA NTZAK

*Euskadin 2030 Agenda bultzatuz,
eragile anitzeko lankidetzaren eta
politiken koherentziaren bidez*

II ENCUENTRO
SOCIEDAD
CIVIL

UN FUTURO COHERENTE

ALIANZAS PARA
EL DESARROLLO
SOSTENIBLE

*Impulsando la Agenda 2030 en Euskadi
mediante la colaboración multiagente y
la coherencia de políticas*

AMAIERAKO DOKUMENTUA:

**Zubiak eraikitzen: Garapen
iraunkorrerako politiken koherentzia
Euskadin, aldaketarako eragile gisa**

- 
- 
1. SARRERA
 2. AURREKARIAK
 3. GARAPEN IRAUNKORRERAKO POLITIKEN KOHERENTZIARI
ETA 2030 AGENDARI BURUZ
 4. GOMENDIOAK ETA PROPOSAMENAK
 - A. POLITIKA PUBLIKOEN EREMUA
 - B. ENPRESEN EREMUA
 - C. GIZARTE ZIBILAREN EREMUA
 5. AMAIERAKO GOGOETAK
 6. ERAKUNDE SUSTATZAILEAK ETA ATXIKIAK



1. Sarrera

Elkarrekin lotutako krisien aro batean bizi gara, eta ingurumen-, ekonomia-, gizarte- eta politika-erronkek elkar bultzatzen dute. Krisi sistemiko horren aurrean, **garapen iraunkorra** eredu bideragarri bakartzat hartzeko premia sortu da. Ikuspegi horrek trantsizio estruktural bat planteatzen du, eta trantsizio horretan, pertsonen ongizatea eta planetaren iraunkortasuna politika eta estrategia sozioekonomikoen erdigunean jarri behar dira. Ezinbestekoa da justizia sozialean, ekitatean, aberastasunaren banaketan eta muga ekologikoekiko errespetuan oinarritutako politiken eta ekintzen alde egitea.

Garapen Iraunkorrerako Politiken Koherentziaren (aurrerantzean **GIPK**) helburua politika publiko eta eragileen ekintza guztiak lerrokatzea eta koordinatzea da, garapen iraunkorrean modu integratuan eta eraginkorrean lagunduko dutela bermatzeko, kontraesanak saihestuz eta gizartean, ingurumenean eta ekonomian inpaktu positiboak maximizatuz.

Ikuspegi hori iraunkortasunean, desberdintasunen murrizketan, begirada feministan eta giza eskubideen sustapenean oinarritzen da. GIPKk **politikak interdependentzia-irizpide baten arabera berrikusteko eta interpretatzeko tresna** gisa jotzen du, eta zuzeneko hartzaileak ez ezik, zeharka eragindakoak ere kontuan hartzen ditu, bai munduko beste eskualde batzuetan, bai etorkizunean.

GIPK eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da garapen-eredu bidezkoago eta iraunkorrago baterako trantsizioak modu koordinatuan bultzatzea. Horrek esan nahi du ekintza politikoak ezin diela interes partikularrei bakarrik erantzun; aitzitik, **guztien ongia** lortzeko bideratuta egon behar du, garapen iraunkorra ardatz nagusitzat hartuta. Prozesu horretan, erakunde publikoek ez ezik, enpresa-sektoreak, gizarte zibil antolatuak eta herritarrek ere funtsezko zeregina betetzen dute, eta **erantzukizun komunak** hartzen dituzte beren gain, baina jarduteko gaitasunaren eta inpaktuaren arabera bereizita.

Dokumentu hau **Gizarte Zibilaren II. Topaketaren (Etorkizun koherente bat) emaitza nagusia** da. Eta **2030 Agendaren esparruan aldaketa eraldatzaile bat sustatzeko eragin-tresna estrategiko** gisa balio izatea du helburu. Bertan, proposamenak, gomendioak eta amaierako gogoeta batzuk jasotzen dira, funtsezko hiru arlo hauekin lotuta:

1. **Administrazio publikoarentzako eskariak:** Garapen iraunkorrerako politiken koherentzia indartzeko ekintza zehatzak.
2. **Enpresa-sektorearen erantzukizunak:** Arlo korporatiboan praktika iraunkorrak eta etikoak sustatzeko estrategiak.
3. **Hirugarren sektorearen eta herritarren ekintzak:** Barne-koherentzia, mobilizazioa eta gizarte-sentsibilizazioa indartzeko neurriak.

Garapen Iraunkorrerako Politiken Koherentzia **eragile anitzeko lankidetza-ikuspegi** baten bidez bakarrik lortu daiteke. Ikuspegi horren arabera, administrazio publikoek, sektore pribatuak, gizarte zibilak eta akademiak elkarrekin lan egin behar dute, politika iraunkorrak eta bidezkoak diseinatzeko eta ezartzeko.





Dokumentu honek abiapuntua izan nahi du, **garapen-eredu koherenteagoa, justuagoa eta inklusiboagoa** bultzatzen jarraitzeko, eta eragile guztiek etorkizun iraunkorra eraikitzeko duten eginkizuna beren gain hartu dezaten.

2. Aurrekariak

Dokumentu hau **Euskadiko Futuro en Común (FeC)** izeneko ekimenean kokatutako prozesu kolektibo baten emaitza da. Ekimen horretan **gizarte zibileko** zenbait arlotako (ingurumena, feminismoa, gazteak, migrazioak, garapena...) **100 erakundek** baino gehiagok hartu dute parte. Topaketen eta lankidetzaren bidez, **trantsizio justu eta iraunkor** baterantz aurrera egin nahi izan da.

Bide horretan, mugarrietako bat **Euskal Gizarte Zibilaren I. Topaketa** izan zen, "**Lortu nahi dugun etorkizuna**" kolektiboki imajinatzeko elkarrizketa-, hausnarketa- eta lankidetzaguneak sortzea ahalbidetu zuena. Topaketa horren ondorioz, euskal alderdi politikoei zuzendutako gizarte zibilaren konpromisoak eta eskakizunak ezarri ziren, garapen iraunkorraren printzipioekin bat datozen politikak bultzatzeko helburuarekin.

Prozesu honen hurrengo mugarria **Gizarte Zibilaren II. Topaketa** izan da: **Etorkizun Koherente bat – Garapen Iraunkorrerako Aliantzak**, otsailaren 4an Bilborock aretoan (Bilbo) egindakoa. Ekitaldi hori, UN Etxea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea, Futuro en Común, Enraíza Derechos eta ECODESek antolatua, eragile anitzeko hausnarketa- eta elkarrizketa-gune gisa finkatu zen, eta gizarte zibil antolatuaren, enpresen eta euskal erakundeen 100 ordezkari inguru bildu zituen.

II. Topaketa horren emaitza nagusietako bat, hain zuzen ere, 2030 Agendaren azken txanpan bide-orri gisa balioko duen **dokumentu estrategiko** hau osatzea izan zen. Bertan, proposamenak, gomendioak eta amaierako gogoeta batzuk biltzen dira, administrazio publikoei, enpresa-sektoreari eta gizarte zibil antolatuari begira, **politiken koherentzia Euskadin eta hemendik haratago indartzeko**.

Bestalde, oso garrantzitsua da GIPKren esparruan **Futuro en Común** aliantzak egindako bidea aitortzea eta bide horretan oinarrituta eraikitzea, sektoreen arteko lana bultzatzeko funtsezko plataforma gisa sendotu baita. Bere lanaren bidez, FeC-k politiken koherentzia sustatu du, eta Espainiako Gobernuari proposamen bat aurkeztu dio, garapen iraunkorrerako politiken koherentziaren sistema integral bat ezartzeko, **Politiken Koherentzia iraunkortasunerako trantsizioaren bihotzean** dokumentuan jasota dagoena.

Prozesu honek berretsi egiten du lankidetzako eta eragile anitzeko lana funtsezkoa dela garapen iraunkorraren printzipioekin bat datozen politika publiko koherenteak bermatzeko. Dokumentu honen bidez konpromiso hau indartuko duen eragin-esparru bat finkatu nahi da, **etorkizun justu, ekitatibo eta iraunkorra eraikitzen aurrera egiten jarraitu ahal izateko**.



3. Garapen iraunkorrerako politiken koherentziari eta 2030 Agendari buruz

Garapenerako Politiken Koherentziaren (GPK) kontzeptua 90eko hamarkadan sortu zen, batez ere OCDEk bultzatuta, herrialde garatuetako politikek garapen bidean dauden herrialdeetan inpaktu negatiborik ez eragiteko helburuarekin. Denborarekin, ikuspegi horrek **Garapen Iraunkorrerako Politiken Koherentziarantz (GIPK)** jo zuen, garapen iraunkorraren printzipioak politika eta eragile guztietan integratzeko, eta, hala, erronka globalei ikuspegi sistemiko eta interkonektatu batetik heltzeko.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 2015eko irailean, **2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak** onartu zituenean nabarmendu zen bereziki GIPKren aintzatespen globala. Horri dagokionez, **17.14 xedeak "garapen iraunkorrerako politiken koherentzia hobetzeko"** konpromisoa ezartzen du, ikuspegi hori 2030 Agenda inplementatzeko funtsezko oinarri gisa sendotuz. Ordutik, nazioartean oro har onartzen da GIPKren arloan aurrera egitea ezinbesteko baldintza dela 2030 Agendaren inplementazioan arrakasta izateko.

Erronka konplexuak eta dimentsio anitzekoak ezaugarri dituen testuinguru global batean, GIPK funtsezko **tresna** da justizia sozialaren, ingurumen-iraunkortasunaren eta garapen ekonomikoaren arteko loturak aintzatetsi eta integratuko dituzten politikak eraikitzeko.

OCDEren arabera (2019), Garapen Iraunkorrerako Politiken Koherentzian aurrera egiteko, beharrezkoa da:

1. **Konpromiso politiko irmoa**, politika publikoak diseinatzeko eta inplementatzeko modua eraldatuko duena, gobernu-egitura osoan zeharkako ikuspegi integral batean oinarrituta.
2. **Epe luzerako planteamendua**, hauteskunde-zikloak gainditu, eta denboran zeharreko politika iraunkorrak bermatuko dituena.
3. **Gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-dimentsioen benetako integrazioa** erabaki politiko guztietan.

2030 Agendak beste garapen-paradigma bat proposatzen du, **lurraldeen, bizitzaren dimentsioen eta belaunaldien arteko interdependentzian** oinarritua. GIPK eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da garapen-prozesuetako funtsezko interakzioak aztertzea eta kudeatzea, hala nola:

- **Diskurtsoaren eta praktikaren arteko interakzioak**, konpromiso politikoak ekintza zehatz bihurtzen direla ziurtatzeko.
- **Gizarte-, ekonomia-, ingurumen- eta politika-dimentsioen arteko interakzioak**, ikuspegi integrala sustatzeko eta kontraesanak saihesteko.
- **Politika sektorialen arteko interakzioak**, eremu bateko erabakiek beste sektore batzuei kalterik egingo ez dietela bermatzeko.
- **Lurraldeen arteko interakzioak**, politikek errealitate globala eta tokikoa modu koherentean islatzeko.

GIPKren erronka handienetako bat interakzio horiek identifikatu eta aitortzeaz gain, horiek sailkatzea eta estrategikoki kudeatzea ere bada, garapen iraunkorra benetako errealitatea izango dela ziurtatzeko, eta ez soilik konpromiso teoriko bat.

GIPKren funtsezko ikuspegiak, Futuro en Común aliantzaren arabera

Futuro en Común (FeC) aliantzaren arabera, **Garapen Iraunkorrerako Politiken Koherentziaren sistema integral bat** sei ikuspegiren inguruan antolatu behar da, interakzioak aztertu eta kudeatzeko:

1. **Lidergo politiko eraldatzailea:** 2030 Agendako konpromisoen eta gobernu-estrategien arteko koherentzia ebaluatzen du, adierazpen politikoak ekintza errealak eta garapen iraunkorrarekin bat datozen aurrekontu-esleipenak izango direla ziurtatu ahal izateko.
2. **Dimentsio anitzeko eta sektore arteko garapena** (koherentzia horizontala): Gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-dimentsioen arteko interakzioak aztertzen ditu, baita politika sektorialen artekoak ere, eta kontraesanak saihesten ditu, hala nola bioerregaiek elikagaien segurtasunean duten inpaktua edo higiezinaren espekulazioa etxebizitza-eskubidearen aurrean.
3. **Maila anitzeko artikulazioa** (koherentzia bertikala): Administrazio-maila desberdinak (tokikoa, autonomikoa, estatukoa eta nazioartekoa) erlazionatzen ditu, eta hainbat problematikari heltzen die, hala nola gutxieneko diru-sarreraren kudeaketaren eta errenta autonomikoen arteko deskonexioari edo uraren kudeaketan administrazioen artean dagoen koordinazio-faltari.
4. **Begirada kosmopolita:** Politika nazionalek dinamika globaletan duten eragina aztertzen du, erantzukizun partekatuen printzipioa aplikatuz. Adibidez, ingurumenaren babesa mugatu dezaketen merkataritza-itunak sinatzea edo gatazkan dauden herrialdeei armak saltzea, interes ekonomikoak giza eskubideen gainetik lehenetsiz.
5. **Begirada feminista:** Interakzio guztiak zeharkatu, eta genero-desberdintasuna iraunarazten duten oztopo estrukturalak identifikatzen ditu. Emakumeen lan-prekaritateak, Mendekotasun Legerako baliabide nahikorik ez izateak eta zaintza-zerbitzu publikoen urritasunak, besteak beste, ekitatean eta 5. GIHaren (genero-berdintasuna) betetze-mailan eragiten dute.
6. **Gobernantza demokratikoa eta partizipatiboa:** Onartu egiten du garapena ez dagoela soilik Estatuaren mende, beste eragile batzuen mende ere badagoela, hala nola gizarte zibil, akademia eta sektore pribatuaren mende. Koherentzia lortzeko, eragile horien arteko interakzioak kudeatu behar dira, garapen iraunkorrean duten eraginaren arabera bereizitako erantzukizunen irizpideak txertatuz.



4. Proposamenak eta gomendioak

Jarraian, zenbait proposamen eta gomendio aurkezten ditugu, Gizarte Zibilaren II. Topaketan (Etorkizun Koherente bat – Garapen Iraunkorrerako Aliantzak) erakunde askok elkarrekin egindako lanaren ondorioz.

Hemen jasotako proposamenak **Euskadiko eta beste herrialde batzuetako politiken koherentzia indartzeko bide-orrria** izatea nahi dugu, 2030 Agendaren inplementazioan inpaktu positiboak maximizatzeko eta kontraesanak minimizatzeko. Gomendioak hiru ardatz nagusitan egituratuta daude:

- **Politika publikoen eremua** → Administrazioei eta gobernuei zuzendutako ekintzak, politiken koherentzia beren esparru politikoan, normatiboan eta kudeaketa-esparruan integratzeko.
- **Enpresen eremua** → Eredu ekonomiko iraunkor eta etikoak sektore pribatuan sustatzeko estrategiak.
- **Gizarte zibilaren eremua** → Erakunde sozialen mobilizazioa, eragina eta barne-koherentzia indartzeko ekimenak.

Hurrengo proposamenen bidez eragileek ekintza bideratu nahi da, eta konpromiso partekatuak sortu, garapen-eredu bidezkoagoa, iraunkorragoa eta erresilienteagoa eraikitzeak aukera emango duten erantzukizun komun baina bereizien premisaren pean.

A. Administrazio publikoen eremua:

Nahiz eta eragile publiko eta pribatu guztiek duten GIPK inplementatzeko erantzukizuna, administrazio publikoek **jarri behar dute martxan haren aplikazioa eraginkorra egingo duen sistema bat**, 2030 Agendarekin hartutako konpromisoak betetzeko oinarritzko urrats gisa. Haien lidergoa funtsezkoa da politika guztiek garapen iraunkorrari lagunduko diotela bermatu, kontraesanak saihestu, eta sinergiak bultzatzeko. Horretarako, proposamen hauek planteatu dira:

A1. Konpromiso politiko eraldatzailea

- Itunen bidez **konpromiso politiko sendo eta iraunkor bat** lortzea, hauteskunde-zikloak gainditu eta ekintza zehatzak ekarriko dituen, eta, hala, GIPK gobernu-aldaketen eta egoera politikoaren mende ez dagoela eta ekintza publikoaren printzipio gidaria dela ziurtatzea.
 - **Guztien ongia** alderdien interesen gainetik **lehenestea**, iraunkortasunean, ekitatean eta justizia sozialean oinarritutako erabakiak hartzea sustatuz.
 - Politika publikoen arteko interakzio anitzak aztertuko dituen **GIPKren sistema bat eraikitzea**, kontraesanak saihesteko eta inpaktu positiboak maximizatzeko.
- 

- **Giza eskubideekiko errespetua zeharkako ardatz gisa txertatzea**, eta erakunde publiko guztiek errespetu hori beren politiketan, araudietan eta praktiketan integratuko dutela bermatzea.
- Politika publiko guztietan **kontuen jarraipena egiteko, eta haiek emateko eta ebaluatzeko** mekanismoak bermatzea.
- **Ekintza politikoa birformulatzea**, politika publikoak lerrokatuz eta berrikusiz, garapen iraunkorrean modu eraginkorrean lagundu dezaten.
- Zatiketa sektoriala gainditzea, sinergiak identifikatu eta inpaktu negatiboak minimizatuko dituen **kudeaketa integratuko** ikuspegia bultzatuz.
- **Etorkizuneko belaunaldien eskubideak bermatzeko mekanismoak bultzatzea**, epe laburreko erabakiak saihestuko dituzten eta epe luzerako erronka klimatiko, ekonomiko eta sozialei erantzungo dieten politikak sustatuko dituzten konpromiso instituzionalen bidez.
- Pertsonen eskubideetan eta ingurumena etorkizuneko belaunaldientzat zaintzean oinarritutako **bizikidetza-esparru globala defendatzea**.

A2. Lidergo instituzionala eta gobernantza

- **GIPKren** lidergoa gobernu-maila gorenetan kokatzea, eta, horretarako, gizarte zibilak eta beste eragile batzuek parte hartzeko mekanismoak ziurtatzea.
- **Politiken koherentziari buruzko plan estrategiko bat** egitea, betetze- eta ebaluazio-adierazleekin.
- Politikariei eta teknikariei **GIPKri buruzko prestakuntza espezializatua** eskaintzea.
- **Departamentu barneko eta departamentu arteko koordinazioa** hobetzea, lankidetzak-egiturak sustatuz.
- Politiken eta departamentuen arteko **interrelazioen mapa bat** sortzea, gizartean, ingurumenean, ekonomian eta etikan dituzten ondorioak aztertze eta ebaluatze.
- **Administrazio publikoaren barruan organo edo puntu fokal bat** ezartzea, GIPKren prozesua bultzatzeko eta hartan laguntzeko. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, hori Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza izan daiteke.

A3. Herritarrak eta parte-hartzea

- **Gizarte zibilaren rola indartzea** erabakiak hartzeko funtsezko eragile gisa, **herritarrek** politika publikoetan eragiteko eta gobernuen jarduna fiskalizatzeko benetako mekanismoak dituztela ziurtatuz.
- Herritarrek arazo globalak eta tokikoak uler ditzaten sustatzea.
- Politika publikoak egitean **prozesu irekiak eta partizipatiboak** bermatzea.
- **Gazteak garapen iraunkorraren eta ekitatiboaren ereduari buruz sentsibilizatzea**, eta gizarte-eraldaketarekin konprometitutako herritar kritikoak sustatzea.

A4. Kontratazio publiko arduratsua

- **Giza eskubideak urratzen dituzten** edo ingurumen-inpaktu negatiboak eragiten dituzten enpresak laguntza, dirulaguntza eta kontratu publikoetatik **kanpo uztea**.
- **Lizitazio publiko** guztietan irizpide sozialak, ingurumenekoak eta etikoak txertatzea, eta estandar argiak eta neurgarriak definitzea.
- Giza eskubideak errespetatzea eskatzen duten eta, bete ezean, kontratua deuseztatzeko aukera ematen duten **kontratu-klausula lotesleak** sartzea, eta, hala dagokionean, zigorrak ezartzea.
- **Administrazio publikoek giza eskubideekiko duten konpromisoa** kontratu, lehiaketa eta lizitazio guztietan islatzen dela ziurtatzea, inbertsio sozialek edo enpresa-filantropiak praktika arduragabeak konpentsa ez ditzaten.

A5. Aukera-berdintasuna eta giza eskubideak

- Politiken aplikazioarekin lotutako **testuinguruaren eta errealtatearen ezagutza sakona** bermatzea.
- **Zaurgarri egindako kolektiboentzako ekintza positiboak** inplementatzea.
- **Genero-berdintasunaren** printzipioa politika publiko guztietan aplikatzea.
- **Bizia eta zaintzak politiken garapenaren erdigunean** jartzea.

A6. Ingurumen-iraunkortasuna eta justizia klimatikoa

- **Justizia klimatikoko politikak garatzea**, klima-aldaketari aurre egiteko neurriak ekitatiboak izatea eta komunitate ahulenak babestea ziurtatzeko, komunitate horiek kaltetuagoak izaten baitira haien ondorioz.
- **Ingurumen-irizpideak politika publiko guztietan txertatzea**, sektoreen arteko kontraesanak saihesteko eta ekoizpen- eta kontsumo-eredu iraunkorrak sustatzeko.
- **Bidezko trantsizio ekologikoa bermatzea**, energia berriztagarrien erabilera eta emisioen murrizketa bultzatuz, pertsonen eskubideak arriskuan jarri gabe.
- **Iraunkortasunaren tartaren eredia aplikatzea**, garapen ekonomikoaren, gizarte-ongizatearen eta ingurumen-mugen arteko interdependentzia aitortuz.

A7. Lankidetza eta aliantzak

- **Eragile anitzeko lankidetza sustatzea, diziplinartekoa, interseksionala eta kulturartekoa**, zenbait sektore, ezagutza eta esperientzia integratuko dituzten lan-sareak sustatuz, garapen iraunkorraren erronkei modu integralean heltzeko.
- **Enpresen, gizarte zibilaren eta administrazio publikoen arteko lankidetza-mekanismoak ezartzea**, eta eragileen helburuak eta estrategiak bat datozela, eta kontraesanak edo inpaktu negatiboak sortu beharrean elkar indartzen dutela ziurtatzea.
- **Gobernantza partizipatiboko espazioak bultzatzea**, inplikaturako sektore guztiek erabakiak hartzen lagundu ahal izateko, eta, hala politikak ezartzean gardentasuna eta erantzukidetasuna bermatzeko.

- **Sektore pribatuarekiko elkarrizketa sustatzea**, enpresak nazioartekotzeko estrategiek iraunkortasunaren printzipioak eta giza eskubideak betetzen dituztela ziurtatzea, eta komunitate zaurgarrietan edo ingurumenean inpaktu negatiboak sortzen dituzten praktikak saihestea.
- **Gobernu-maila desberdinen** (tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta nazioartekoa) **arteko lankidetzak sendotzea**, garapen iraunkorreko estrategietan lerrokadura bermatzea, eta administrazioen arteko politika kontraesankorrak saihestea.

A8. Hezkuntza-politika

- **Hezkuntza-maila guztietan** (eskoletan, lanbide-heziketan, unibertsitateetan...) **elkartasunari, justizia sozialari eta giza eskubideei buruzko prestakuntza txertatzea**, eta balio horiek ikasketa-planetan zeharkakoak direla ziurtatzea.
- **Irakasleei prestakuntza espezifiko eskaintzea**, garapen iraunkorraren printzipioak ulertzeko eta aplikatzeko ezagutzak, tresnak eta baliabideak izan ditzaten.
- **Metodologia partizipatiboak eta esperientzia-ikaskuntza bultzatzea**, ikasleek erronka globalei buruz hausnartu eta beren ingurunetik konponbide zehatzetan parte hartu ahal izateko.
- **Irakasleen gaikuntza bermatzea**, ikuspegi hauek eraginkortasunez transmititzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta trebetasunak dituztela ziurtatzeko.

A9. Enpresa-erantzukizun eta giza eskubideetarako esparru publikoa

- **Egoitza Euskadin duten enpresa guztiek beren jarduera guztietan giza eskubideak eta ingurumena errespetatzen dituztela bermatzea**, tamaina, sektorea edo lan-eremua kontuan hartu gabe, eta Hegoaldeko herrialdeetan edo arrisku handiko inguruneetan aritzen direnei arreta berezia jarrita.
- **Giza eskubideen arloan behar bezalako arreta nahitaezko baldintza gisa sartzea**, eta ziurtatzea enpresek identifikatu, prebenitu eta arindu egingo dutela beren jarduerak pertsonengan eta komunitateetan eragindako edozein inpaktu negatibo, hornidura-katea eta merkataritza-harremanak barne.
- **Kontuak kontrolatzeko eta emateko mekanismoak ezartzea**, enpresa-sektorean giza eskubideen eta iraunkortasunaren estandarrak ebaluatzeko eta betetzen direla bermatzeko.
- **Finantzaketa publikoa eta onura fiskalak lortzeko** giza eskubideekiko eta ingurumenarekiko benetako konpromisoa erakusteko **baldintza jartzea**.
- **Pizgarriak sustatzea praktika arduratsuak dituzten enpresentzat**; adibidez, ziurtagiriak edo onurak kontratazio publikoan.

B. Enpresen eremua

Enpresa-sektoreak funtsezko zeregina du GIPKrekin bat datorren eredu ekonomiko iraunkorra eraikitzeko. Horregatik, oinarrizkoa da enpresak errentagarritasun



ekonomikotik harago joatea, eta gizarte, ingurumen eta giza eskubideei dagokienez duten erantzukizuna beren gain hartzea.

B1. Guztien ongiarekiko eta giza eskubideekiko konpromisoa

- **Erantzukidetasuna onartzea**, sektore pribatuak gizartearen eta ingurumenaren eraldaketan funtsezko zeregina duela aitortuz, erantzukizun partekatuak baititu, baina eragiteko gaitasunaren arabera bereizita.
- Enpresek beren balio-katearen inongo fasetan **giza eskubideak eta naturarenak urratzen ez dituztela** bermatzea.
- **Gardentasunerako eta informazioa eskuratzeko estrategiak hartzea**, eta enpresa-erabakiak eskubideen ikuspegitik eskuragarriak eta ulergarriak izango direla ziurtatzea.
- **Langileak erdigunean jartzea**, eta, horretarako, lan-baldintza duinak sustatzea, kontziliazioari, zaintzari eta lan-eskubideen errespetuari arreta berezia eskainiz.
- **Erantzukidetasuna eta ekodependentzia** sustatzea, eta, horretarako, giza eskubideak errespetatzen dituzten ondasun eta zerbitzu iraunkorrak eskaintzen dituzten enpresen ekosistema bat sustatzea.
- **Kontratazio-politika inklusiboak eta ez-diskriminatzaileak** egitea, enpleguan aukera-berdintasuna eta aniztasuna sustatuko dituztenak.
- **Enpresen programen eta planen arteko koherentzia** ziurtatzea (berdintasun- eta aniztasun-planak, datuen babesa, Garapen Iraunkorrerako Helburuak, kudeaketa aurreratua, ingurumen-planak...).

B2. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak

- **Hornitzaile iraunkorrak izateaz gain, kontsumitzaile koherenteak ere izatea**, eta erosketak eta kontratazioak iraunkortasunaren balioekin eta giza eskubideekin bat datoze la ziurtatzea.
- **Merkatu iraunkorra sustatzea**, eta, horretarako, hornitzaile arduratsuen garapena bultzatzea; adibidez, enpresa-jantokietan 0 kilometroko produktuen erabilera bultzatzea.

B3. Ingurumen-inpaktuaren murrizketa eta erantzukizun klimatikoa

- **Aztarna ekologikoa neurtzea eta murriztea**, haren ingurumen-inpaktua minimizatzeko helburu zehatzak ezarri eta beharrezkoa denean konpentsatuz.
- **Erabakiak hartzean ingurumen-inpaktuaren neurketa txertatzea**, eta enpresa-operazioek oreka ekologikoari kalterik egingo ez diotela bermatzea.

B4. Gardentasuna eta kontuak ematea

- **Aldizkako enpresa-autodiagnostikoak egitea**, diagnostikoa lortzeko eta giza garapen iraunkorraren balioak ekintza zehatzetan islatzen direla ziurtatzeko.
 - **Barne- edo kanpo-ebaluazioko mekanismoak eta tresnak aplikatzea** (auditoriak), enpresaren jarduerak eta operazioak gizartean, ingurumenean eta ekonomian duten inpaktua neurtu ahal izateko.
- 

- **Iraunkortasun-txostenak argitaratzea**, kudeaketa arduratsuekin lotutako konpromisoak, aurrerapenak eta hobekuntza-arloak barne hartuta.

C. GIZARTE ZIBIL ANTOLATUAREN EREMUA

Gizarte zibil antolatuak funtsezko zeregina du GIPKren sustapenean, herritarren, erakundeen eta oinarritzko beste eragile batzuen arteko zubi gisa jokatzeko baitu. Oso garrantzitsua da gizarte zibil antolatua funtsezko eragile gisa indartzea, eta politiken eta egituren eraldaketan sareko lanaren, barne-koherentziaren eta eragin eraginkorraren alde egin behar du.

C1. Barne-koherentzia eta erakunde-kultura

- **Erakundeen barruan koherentzia bermatzea**, eta, horretarako, beren jardunbideei eta egiturei buruz hausnartzea, iraunkortasunaren eta justizia sozialaren balioekin bat datozela ziurtatzeko.
- **Autodiagnostikoko eta barne-hausnarketako prozesuak bultzatzea**, antolaketa-lanean koherentzia handiagoa lortzeko hobekuntza-arloak eta estrategiak identifikatu ahal izateko.
- **Dauden espazioak mapatzea**, eta nork parte hartzen duten, zer behar dituzten eta baztertuta nor dauden identifikatzea, parte hartzeko oztopoak murrizteko.
- **Elkarri laguntzeko eta pentsamendu kritikoa eta sexya lantzeko guneak sustatzea**, erakargarriak eta berritzaileak izango direnak, eta lankidetzak eta ikaskuntza kolektiboa sustatuko dituztenak.
- **Trantsizioaren eta etengabeko ikaskuntzaren ideia barneratzea**, eta *saia*kuntza eta *errore*a egokitzen eta hobekuntza-prozesuaren parte dela onartzea.
- **Sareko proiektuak sustatzea**, erakundeek inpaktu kolektiboa sortzeko ekimenak antolatuz.

C2. Aliantzak eta diskurtso partekatuen eraikuntza

- **Beste sektore batzuetako eragileekin aliantza estrategikoak bultzatzea**, eta, horretarako, giza eskubideekin, feminismoarekin eta ekologismoarekin lotutako erakundeen eta beste gizarte-mugimendu batzuen arteko lankidetzak sustatzea.
- **Agenda politiko komunak osatzea**, gizarte zibileko sektoreen arteko sareak antolatuz, politika publikoetan koherentzia eta justizia globalaren ikuspegitik eragiteko.
- **Narratiba eraldatzaileak bultzatzea**, garapen iraunkorrari buruzko diskurtsoa berritzeko eta bidezko politika eta trantsizio ekosozialen koherentziarantz bideratzeko.
- **Administrazio publikoetan duen eragina indartzea**; argi eta garbi eskatzea gizarte zibilak parte-hartze handiagoa izan dezala erabakiak hartzean eta garapen iraunkorreko politikak diseinatzean.

- **Lankidetzako kanal estrukturalak eta kritikoak garatzea**, eta ahaleginak eraginkortasunez artikulatzeko aukera emango duten sektore arteko sareen alde egitea.

C3. Arlo komunitarioa eta partaidetza soziala indartzea

- **Elkarrietzako foroak suspertzea eta indartzea**, eta, horretarako, giza eskubideei, justizia klimatikoari, feminismoari, iraunkortasunari eta gizartearen eraldatzeko beste ardatz batzuei buruzko hausnarketa kolektiborako guneak sortzea.
- **Errealitate sozialarekiko lotura handitzea**, erakundeek *kalean* presentzia handiagoa eta komunitateekin lotura zuzena izan ditzaten sustatuz, eta tokiko arazoekiko eta dinamikekiko deskonexioa saihestuz.
- Erakundeen, herritarren eta beste eragile sozial batzuen arteko interakzioa, elkarrietzako eta baterako lana sustatzeko aukera emango duten **espazio fisiko irekiak sendotzea eta haietan esku hartzea**.
- **Epe luzerako prozesuen alde egitea**, eta garatutako ekintzak denboran zehar iraunkorrak izango direla eta aldaketa estrukturalak finkatzeko aukera emango dutela ziurtatzea.
- **Militantzia-denborak bizitza pertsonalarekin uztartzea**, eta, horretarako, ekintzaileen ongizatea errespetatuko duten eta parte hartzeko espazioetan zaintza sustatuko duten antolaketa-ereduak bultzatzea.

C4. Komunikazio eraldatzailea eta mobilizazio soziala

- Komunikazio ulergarria eta eraldatzailea sustatzea, informazioa hainbat publikori hurbiltzeko eta parte-hartze aktiboa bultzatzeko **narratiba inklusiboak** erabiliz.
- **Mobilizazio sozialeko estrategia berritzaileak sortzea**, artea, sormena eta kultura sentsibilizaziorako eta aktibismoarako tresna gisa integratzeko.
- **Sentsibilizazio-kanpainak garatzea**, iraunkortasunaren, justizia sozialaren eta giza eskubideen balioak sustatzeko, kontzeptu horiek herritarrei modu ulergarrian eta motibatzailean hurbilduz.

5. Amaierako gogoetak

Garapen Iraunkorrerako Politiken Koherentzia premiazko beharra eta erronka konplexua da. Interesen aniztasunak, erakundeen zatiketak eta lehentasunen gatazkek zaildu egiten dute hura erabat aplikatzea, baina horiek ezin dira gelditasunerako aitzakiak izan. Elkarrekin lotutako krisi ugari markatutako testuinguruan, funtsezkoa da politiken koherentzia handiagoa lortzeko bidean aurrera egitea, garapen-eredu bidezkoagoa, ekitatiboagoa eta iraunkorragoa bermatzeko.

Badakigu ez dela prozesu erraza. **Errealitatea oso konplexua da**, gure erakundeak ez daude oraindik prestatuta eta aldaketa sakonak behar dituzte, eta askotan beharrezko aldaketak geldiarazten dituzten interes-gatazkek egoten dira. Hala ere, GIPK politikak formulatzeko eta ezartzeko printzipio gidari gisa hartzeak, inkoherentziak prebenitzeaz gain, aukera ematen du emaitza positiboak ugaritzeko, inpaktu negatiboak murrizteko eta sektore eta eragile desberdinen arteko sinergiak sortzeko.

Eragile anitzeko lankidetza ezinbestekoa da. **Eragile batek ere ezingo du bakarrik lortu beharrezko eraldaketa sistemikoa**. Eragile guztiek (administrazio publikoek, sektore pribatuak, gizarte zibil antolatuak, akademiak, herritarrek...) elkarrekin egin behar dute lan, konfiantzatik eta erantzukidetasunetik abiatuta, gobernantza inklusiboagoa, demokratikoagoa eta partizipatiboagoa bultzatzeko. Mesfidantzak zatitu egiten du; entzuteak, errespetuak eta ekintza koordinatuak posizioak hurbildu, eta aldaketarako gaitasuna sendotzen dute.

Era berean, funtsezkoa da maila guztiak zeharkatuko dituen **autokritika konstruktiboa** egitea:

- **Administrazio publikoetatik**, lidergo instituzionalaren bidez, ziklo politikoak gaindituko dituen epe luzeko ikuspegiari oinarrituta, eta iraunkortasuna eta giza eskubideak erabakiak hartzeko prozesuen erdigunean jarrita.
- **Enpresetatik**, gizarte- eta ingurumen-erantzukizuna haien xedearen eta negozio-ereduaren parte gisa integratuz, eta ez soilik ospearekin lotutako estrategia gisa.
- **Gizarte zibiletik**, barne-koherentzia bermatuz, pentsamendu kritikoa sustatuz eta haren eragina eta ordezkaritza zabaltzeko aukera emango duten artikulazio-espazioak sortuz.
- **Hezkuntzatik**, zentzu zabalean ulertuta, beste komunitate batzuekin eta planetarekin dugun interdependentsia hobeto ulertzeko, desberdintasunen eta krisi klimatikoaren aurkako borrokan begirada kritikoa eta erantzukidetasun aktiboa sustatuz.
- **Herritarrengandik**, politika publikoen fiskalizazioan eta eraldaketan rol aktiboa hartuta, aktiboki parte hartuz eta gardentasun handiagoa eta kontuak ematea exijituz.

Feminismoa GIPKn txertatzea ere funtsezko estrategia bat da. Mugimendu feministaren esperientziak **antolaketa, eragin politiko, artikulazio eta herritarren mobilizazioaren balioa** erakusten digu, desberdintasunak zalantzan jartzeko eta eskubideak exijitzeko estrategia eraginkor gisa. Eskubideen aldeko borroka izateaz gain, feminismoak politika publikoak eraldatzeko tresnak ekartzen ditu, **zaintzaren**

etika eta biziaren iraunkortasuna erdigunean jarrita, eta trantsizio ekologikoa eta soziala bidezkoa eta inklusiboa izatea ziurtatuta. Gainera, kultura eta gizartea aldatzeko motorra da, egitura patriarkalei aurre egiten diena eta berdintasuna, aniztasuna, justizia eta beste zenbait balio sustatzen dituen.

Dokumentu hau **bide-orri bat da, baina ez azken puntua**. Helburua dokumentuak ekintzarako eta eragiteko erreferentzia gisa balio izatea da, eta GIPK erabaki-maila guztietan integratzeko aukera emango duten neurri zehatzak sustatzea. Alderdi guztiei eskatzen diegu **benetako konpromisoak hartzeko, urrats sendo eta progresiboekin aurrera egiteko**, eta politiken koherentzia Euskadin eta munduan gaur egun dauden erronkei heltzeko tresna operatibo bihurtzeko.

Eraiki ditzagun zubiak. GIPKk borondate politikoa, gizarte zibil antolatuaren konpromisoa eta guztien ongiarekin bat datorren sektore pribatu bat behar ditu. Ezin dugu lana modu zatikatuan egin, ezta funtsezko erabakiak atzeratu ere. **Lankidetzak, elkarrizketa eta baterako ekintza** indartuko dituzten zubiak eraikitzeko unea da. **Konfiantza, erantzukidetasunean eta koherentzian** oinarritutako ikuspegi integratzaile eta eraldatzaile batetik abiatuta bakarrik izango gara gai lortu nahi dugun etorkizunerako aldaketa sistemikoa sortzeko.

Erakunde sustatzaileak



Atxikitako erakundeak





Aguarikoko
Bikariatoa Ekuador

Mugarik gabeko
Ekonomilariak



Economistas
sin Fronteras

Qubiz
team

la *md* @ XXI
LANDA INGURUKO EMAKUME ELKARTEA



icli
ingeniería para la cooperación
lankidetzarako ingeniariatza



 **alboan**
ONG JESUITA FUNDAZIOA


berdeago

 **MUJERES
CON VOZ**


Slow Food®